



## 2015EKO MAIATZEKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. Udako ordutegian, gehitu 2 ordu denbora ofiziala kalkulatzeko)

### BEHATZEKO PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

Hilaren 1ean, 4:00tan Delta Cephei izarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 6an, 11ean, 17an, 22an eta 28an izango dira beste maximoak.

-Teleskopioarekin:

Saturnoren eraztunak oso ongi ikus daitezke.

Hilaren 22an, Jupiter planetaren mendebaldean, lau ilargi galileotarrak egongo dira lerrokatuta ordena naturalean: Io, Europa, Ganimeses eta Kalisto.

### ILARGIA MAIATZEAN

01 9:46an, Goranzko nodotik pasatuko da.

02 11:35ean, Konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 3,5<sup>o</sup>-ra

04 03:43an, Loreen Ilbetea.

05 15:55ean, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 2<sup>o</sup>-ra.

06 03:13an, konjuntzio geozentrikoan Scorpioko Antares izarrarekin, 9,1<sup>o</sup>-ra.

07 Gutxieneko librazioa longitudean ( $l = -5,6^{\circ}$ ).

08 Gutxieneko librazioa latitudean ( $b = -6,7^{\circ}$ ).

11 10:37an, Ilbehera.

14 20:39an, Beheranzko nodotik pasatuko da.

15 00:44an, Perigeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena: 366.035 km (aurreko apogeoan baino 39.069km gutxiago).

18 4:14an, Ilberria.

21 17:07an, Konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 7,9<sup>o</sup>-ra.

21 Gehiengo librazioa latitudean ( $b = 6,7^{\circ}$ ).

21 Gehienezko librazioa longitudean ( $l = 5,6^{\circ}$ )

24 04:06an, Konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 5<sup>o</sup>-ra

25 08:57an, Konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 3,7<sup>o</sup>-ra.

25 17:20an, Ilgora.

26 22:09an, Apogotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.252 km (aurreko perigeoan baino 38.217 km gehiago).

28 14:39an, Goranzko nodotik pasatuko da.

29 19:17an, Konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 3,6<sup>o</sup>-ra.

### PLANETAK MAIATZEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

#### **Merkurio (hilaren 15aren aurretik ikusgai, arratsalde amaieran) orbita-abiadura: 172.440 km/h**

Hilaren 1ean eguzkia sartu eta bi ordutara ezkutatuko da. Pleyadetatik gertu ikus daiteke, mendebalde ipar-mendebalde horizontearen 5<sup>o</sup>-ra. Hilaren 7an elongazio handiengan. Igoera zuzena 4h eta 4:30h bitarte, deklinazioa 23<sup>o</sup>,24<sup>o</sup> eta 20<sup>o</sup> bitarte. Hilabete guztia Tauron. Magnitudea azkar gutxituko zaio, -0,2tik 3,3ra.

#### **Artizarra (arratsalde amaieran eta gau hasieran ikusgai) orbita-abiadura: 126.000 km/h**

Hilaren 1ean eguzkia sartu eta ia la ordutara ezkutatuko da, 31n hiru ordu eta hogeita minutura. Oso distiratsua, mendebalde ipar-mendebalde horizontearen 15<sup>o</sup>tik gora ikus daiteke. Igoera zuzena 6h eta 8h bitarte, deklinazioa 26<sup>o</sup> eta 24<sup>o</sup> bitarte. Hilabetea Tauron hasiko du, laster Geminisera pasatzeko. Magnitudea zerbait igoko du, -4,1tik -4,3era.

**Marte (hilabete honetan ezingo da ikusi) orbita-abiadura: 86.760 Km/h**

Hurrengo hilaren 14an konjuntzioan eguzkiarekin. Ez dugu berriro udarararte ikusiko, egunsentia baino lehen. Igoera zuzena 3h eta 4h bitarte, deklinazioa  $19^\circ$  eta  $22^\circ$  bitarte. Hilabete guztia Tauron. Magnitudea 1,6an mantenduko da.

**Jupiter (gauaren erdiralderarte ikusgai) orbita-abiadura: 47.160 Km/h**

Hilaren 4an koadraturan. Hilaren 1ean hego-mendebaldeko horizontearen  $45^\circ$ -ra ikus daiteke gauaren hasieran, 31n mendebaldeko horizontearen  $20^\circ$ -ra. Egoera aproposalen ikustatzeko. Igoera zuzena 09h, deklinazioa  $17^\circ$ . Hilabete guztia Cancerren, magnitudea apur bat gutxituko du  $-2,1$ tik  $-2,0$ ra.

**Saturno (gau guztia ikusgai) orbita-abiadura: 34.560 Km/h**

Hilaren 1ean, eguzkia sartu baino ordu ta hiru laurden lehenago aterako da, 31an ordu bat lehenago. Eraztunen orientazioa  $24^\circ$ -tik gora dago, horregatik planetaren aldetan bi belarri balira bezala ikus daitezke. Hilaren 23an oposizioan aurkituko da, gohitik ikusita Eguzkia, Lurra eta Saturno lerrokatuta lirarteke. Lurrarekiko distantzia 74 argi-minututara dago, eta hori da Cassini zundak bidalitako datuen atzerapena. Igoera zuzena 19h, deklinazioa  $-18^\circ$ . Hilabetea Escorpion hasiko du, Libraruntz atzeratzeko, magnitudea zertxobait handituko du,  $0,1$ tik  $0$ ra.

Hilaren 8an 00:01ean, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 15an 21:52an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 23an. 21:19an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 31n. 19:05ean, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

**Urano (hilabete honetan ezingo da ikusi) orbita-abiadura: 24.480 Km/h**

Igoera zuzena 1h, deklinazioa  $+7^\circ$ . Hilabete guztia Piscisen, magnitudea 5,9ra mantenduko da.

**Neptuno (gau amaieran ikusgai) orbita-abiadura: 19.440 Km/h**

Mendebalde koadraturan hilaren 31n. Igoera zuzena 23h, deklinazioa  $-9^\circ$ . Hilabete guztia Acurion emango du. Magnitudea 7,9an mantenduko da

**MAIATZEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK**

01 Ostirala. Eguerdian, 2.457.144. egun juliotarra hasiko da.

Egunak 14 ordu eta 07 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 15 ordu eta 08 minutukoa hilaren 31n.

06 Lurrak Halley kometak utzitako lorratza zeharkatuko du, honek Eta Acuarida bezela ezagutzen diren izar iheskorak eragingo ditu. Apirilek 19tik Maiatzeko 28rarte aktibo.

14 12:00etan, denboraren ekuazioa urteko lehen maximo negatibora iritsiko da:  $-3$  m  $40$  s.

14 18:09an, Eguzkia Tauron konstelazioan sartuko da itxuraz ( $53,63^\circ$ ).

21 Astrologiaren arabera eguzkia Geminisen sartuko da ( $60^\circ$ ).